



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduak 9
Vitoria-Gasteiz, 9 de diciembre de 2020

Lana eta Enplegua

LANERATZEAREN ARLOKO KOORDINAZIO-PROTOKOLO BAT EZARRIKO DUELA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak Lan eta Enplegu Sailak eta Lanbidek Bizkaiko Foru Aldundiarekin enpleguaren eta gizarteratze eta laneratzearen arloan duten jarduera-protokoloaren berri eman dio Gobernu Kontseiluari. Protokolo hori bi erakundeek sinatuko dute.

Protokolo honek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018an eta Arabako Foru Aldundiarekin 2020ko urtarrilean sinatutakoak osatzen ditu, ahaleginak eta baliabideak koordinatzera bideratutakoak, garapen ekonomikoaren, enpleguaren, gizarte-zerbitzuen eta gizarteratze eta gizarteratze soziolaboralaren arloko tresna estrategikoetan aurreikusitako helburuekin bat etorritik. Koordinazio hori are beharrezkoagoa da egungo krisian, eta gobernu-programan jasotzen da.

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia aurreikusi du, eta helburua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta enplegu- eta diru-sarrerak bermatzeko sistemak ematen duten arreta hobetzea, eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzea sustapen ekonomikoari, enpresa-sarearen produktibitateari, enpleguari, ekintzaitzari, enpresa-espirituari eta gizarte-politikei lotutako gobernu-ekintzan. Dokumentuak berriaz aitortzen duenez, "Argi dago diru-sarrerak bermatzeko, gizarte-zerbitzuetarako eta enplegurako politikak eta sistemak gehiago eta hobeto koordinatu behar direla, eta bi sistemetarako garrantzitsua den informazioaren kudeaketa partekatua egin behar dela", eta helburua da gizarte- eta ekonomia-sarea indartzea, pertsona guztiak – Emakumeak eta gizonak – Gizarte- eta ekonomia-sarean aktiboki eta parte-hartzean txertatzen lagunduko duen lankidetzaren bidez".

Beste bi foru-aldundiekin partekatutako helburuekin batera (gazteen enplegarritasuna eta gizarteratze eta laneratzea hobetzea eta kultura ekintzailea zabaltzea), Bizkaiaren kasuan, lankidetzaren Enkarterri eta Ezkerraldeea eta Mehatzaldea eskualdeetako plan estrategikoak lantzerako eta garatzeko hedatzen da. Plan horiek Eusko Legebiltzarrak aurreko legegaldian burututako lanetatik abiatuta diseinatu ziren.

Ekonomia eta Ogasuna

ESTADÍSTICA INSTITUTU NAZIONALAREN ETA EUSTATEN-EUSKAL ESTADÍSTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2021EKO BIZTANLERIA ETA ETXEBIZITZA ERROLDEI ETA HORIEI LOTUTAKO BIZTANLERIAREN ONDORENGO ESTADÍSTIKEI DAGOKIENEZ

Gobernu Kontseiluak Estadistikako Institutu Nazionalaren eta Eustaten-Euskal Estadistika Erakundearen artean 2021eko biztanleria eta etxebizitza erroldei eta horiei lotutako biztanleriaren beste estatistika batzuei dagokien hitzarmena sinatzea onartu du.

Errolda Orokorrak herrialde bateko estatistika-sistamarako garrantzi handieneko estatistika-eragiketak dira, eraikinen, etxebizitzaren eta horietan bizi direnen funtsezko parametroak zehazten baitituzte, eta haien lurralde- eta administrazio-eremu bakoitzerako oinarritzko informazioa ematen baitute.

Errolda horiek ematen dituzten informazioak funtsezkoak dira administrazio publiko guztientzat, zerbitzu eta politika publikoen plangintza-, kudeaketa- eta jarraipen-lanetarako, eta, gainera, informazio horiek gizarte-eragileentzat eta herritarrentzat, oro har, ere funtsezkoak dira.

Informazio horiek oso paper garrantzitsua betetzen dute, baita ere, Europar Batasuneko Funtzen eta Programen plangintzari, garapenari eta ebaluazioari dagokienez, eta errolda arloko informazio xehatuek funtsezko zeregina betetzen dute, Europar Batasunean aurrekontuen inguruan hartzen diren erabakiak asko oinarritzen baitira estatistika arloko informazio ofizialean, lurraldeka zehaztutako arloei dagokienez.

Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren estatistika-eragiketa 2017-2020 Estadistika Plan Nazionalean eta 2019-2022 Euskal Estadistika Planean dago jasota; beraz, estatistikako planetan aurreikusitako helburuak betetzeko ahaleginak batzeko eta estatistika-eragiketan bikoiztasunak saihesteko interes komuna dago. Horrek, aldi berean, baliabide publikoak aurrezteko ekarriko du.

INEren eta Eustaten arteko hitzarmen honen xedea 2021eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak egiteko lanak gauzatzeko beharrezkoak diren metodologiak eta informazio estatistikoa trukitzea da.

Hezkuntza

1,1 MILIOI EURO EUSKADIN BIKAINTRASUNEO IKERKETA SUSTATZEKO LAGUNTZATAN

- **Hezkuntza Sailak hiru dirulaguntza zuzen eman ditu, bikaintasuneko ikerketa-proiektuetara eta ekipamendu zientifikoa eskuratzera bideratuak**

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuak proposatuta, hiru dirulaguntza zuzen ematea onetsi du, euskal unibertsitate-ekosistemari lotutako bikaintasuneko ikerketaren eremuko eragileei zuzenduta. Zehazki, Euskal Herriko Unibertsitatearentzako (UPV/EHU) eta BCMaterials eta BCBL bikaintasuneko ikerketa-zentroentzako laguntza zuzenak baimendu dira. Ekipamendu zientifikoa erostera eta bikaintasuneko ikerketa-proiektuak bultzatzera bideratuta, hiru laguntzok 1.113.000 euroko kopurua dute orotara, era honetan banatuta:

200.000 euro BCBL – Basque Center on Cognition, Brain and Language ikerketa zentruari, **osasan-eremuko ikerketa-proiektu bat** abiarazteko. Laguntzaren helburua da Biozientzien eta Osasunaren arloan elkarlaneko ikerketa-proiektua garatzea, paziente esnatuekin garuneko eremu adierazgarrien kirurgiako ikerketa klinikoko segurtasuna baloratzeko; bertan BCBL-k, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak (ESI Ezkerraldea) eta BioCrucesek elkarlanean dihardute.

Eragile horiek lan egiten duten “*Neurodegenerazioa, garuneko kaltea eta errehabilitazioa*” ikerketa-ildoaren barruan, gizarteari transferitzeko proiektua garatzen ari da, paregabea eta berritzailea: garuneko tumorea duen pazientearen biziraupena haren gaiztotasun-mailaren eta egindako erresekzio kirurgikoaren araberakoa izango da. Hori dela eta, paziente esnatuarekin egiten den kirurgia teknika eraginkorra da garuneko tumoreak dituzten pazienteetan; izan ere, pazientearen biziraupena eta gaixotasunik gabeko aldia luzatzen du eta, hala, bizi-kalitatea mantendu.

BCBLren ikerketak, besteak beste, honako helburu hauek ditu: segurtasun klinikoan eragitea, sekuelak gutxitzea eta kirurgia-mota horren eraginpean dauden pazienteen ongizatea bermatzea. Modu berean, ikerketa honen helburu da funtzio kognitiboen oinarri diren garuneko sareei buruzko ezagutza sortzea, zehazki hizkuntzarenak, eta garuneko plastikotasuna hobeto ezagutzea. Proiektuak garrantzi handia du bai nazioarteko komunitate zientifikoarentzat bai Euskadikoarentzat, eta, gainera, euskal osasan- eta ikerketa-sistemaren hiru agenteren parte-hartzea ere badu: BCBL, ESI Ezkerraldea (Gurutzetako Ospitalea) eta BioCruces OII.

BCBLk dirulaguntzaren zenbatekoa proiektuari atxikita dauden langileen (ikertzaileak, laborategiko langileak eta administraziokoak) lan-kostuak ordaintzera bideratuko du.

413.000 euro UPV/EHUrentzat, transmisioko mikroskopia elektronikoa erosteko. Laguntza horren helburua da UPV/EHUren Ikerketako Zerbitzu Nagusietarako transmisioko mikroskopia elektronikoaren erosketaren finantzatzea, ekipamendu berri horri esker bioteknologiaren, energiaren eta materialen zientzia eta teknologiaren arloak sustatzeko.

UPV/EHUren Ikerketako Zerbitzu Nagusiak, SGIker, agente esanguratsua dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen ikerketaren ekosisteman. Azken belaunaldiko instalazioak, gaikuntza eta ikerketa-komunitatearentzako eta industria-bazkideentzako zerbitzuak eskaintzen dituzte. SGIkerrek azpiegitura eta langile oso kualifikatuak ditu, aldi berean UPV/EHUren hiru lurralde historikoetan dauden unitate eta zerbitzuetan banatuta. Unitate horiek eta haien zientzia- eta teknologia-azpiegitura langileek eurek kudeatzen dute. Guztira, 53 pertsonak eratzen dute staff teknikoa; haietatik, 39k doktore-gradua dute.

500.000 euro BCMaterials - Material, Aplikazio eta Nanoegituren Euskal Zentroarentzat, bertako Nanokimikaren, Biomaterialen, Manufaktura aurreratuaren eta Optikaren eta Optoelektronikaren laborategien egokitzapenerako eta ekipamendurako. BCMaterials nazioarteko erreferentzia-zentro gisa finkatzeko, zentroa hedatu egin behar da eta, horretarako, espazio egokituak sortu behar dira ikertzaileak sartzeko, bai eta ildo eta arloentzako ikerketa-laborategi bereziak ere.

Hori dela eta, gorago aipatutako dirulaguntza BCMaterials ikerketa-zentroaren laborategien egokitzapenera eta ekipamendura bideratuko da.

Bikaintasuneko ikerketa-zentro honek fisikariak, kimikariak, biologoak eta ingeniariak hartzen ditu, eta, sortu zenetik, material berrien inguruko garapena sustatzen du, modu integratuan eta diziplina anitzekoan. BCMaterialsek ikerketaren alderdi oinarrizkoetan eta ezaugarri mekanikoak, termikoak, kimikoak, elektrikoak, magnetikoak eta optiko aurreratuak dituzten material funtzionalen aplikazioetan dihardu, besteak beste; hala, sintesia, prozesatua, karakterizazioa eta material horiek gailuetan integratzeko ahalegina egiten du.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUNDEK UDALEI BERDINTASUN PLANAK EGITEKO ETA ELKARTEEI EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA PREBENITZEKO EMANGO DIZKIEN 800.000 EUROKO DIRULAGUNTZAK ONARTU DITU

Gaurko Gobernu Kontseiluak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bi diru laguntza deialdi onartu ditu 800.000 euroko balioarekin, udalak eta elkarteentzako zuzenduak 2021. urterako. Batetik, 300.000 euroko diru-laguntza deialdia egin du Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentzio jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei zuzendua. Honekin batera, udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko 500.000 euroko diru laguntzak zuzendu dizkie.

Bestetik, Gobernu Kontseiluak Emakundek 2021erako deitutako emakume eta gizonen berdintasunerako hiru beka deialdi onartu ditu 70.000 euroko balioarekin. Beka-mota bakoitzaren edukia ikerketa-gai hauei buruzkoa izango da:

- a) 1. motako beka: Gizarteko eremu guztietan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea.
- b) 2. motako beka: Egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean.
- c) 3. motako beka: Emakumeen sarbidea, parte-hartzea eta eragina arlo soziopolitikoan erabakiak hartzeko arloetan, eta emakumeen buruzagitza eta ahalduntze politiko, ekonomiko eta sozialari laguntzen dioten eta sistema patriarkala gainditzten laguntzen duten ekimenen eta estrategien bilaketa.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

593.000 EURO EUSKADIKO TURISMOA MERKATURATU ETA SUSTATZEKO LAGUNTZETAN

2020. urtean, Euskadiko Turismoa Merkaturatu eta Sustatzeko Laguntza Programak 593.702 euro bideratu ditu Euskadiko turismoaren sektorea dibertsifikatzen eta dinamizatzen lagunduko duten ekitaldiak, turismo-produktuak, esperientziak eta abar bultzatzeko diseinatutako **70 proiektura**.

Programaren onuradunak beren helburu sozialaren barruan turismoaren sustapena ezarrita duten **mikroenpresak, ETEak, enpresa-elkartek, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak** edota Euskadin Estatuko eta nazioarteko turismo-proiektzioarekin egiten diren kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiak antolatzen dituzten enpresak izan dira.

Deialdiaren emaitza:

	Produktu eta esperientzien sorkuntza	Estatuko eta nazioarteko proiektzioa duten ekitaldiak	
ARABA	11	2	13
GIPUZKOA	27	6	33
BIZKAIA	21	3	24
GUZTIRA	59	11	70

120 proiektu aurkeztu dira. Haietatik, 70 onartu dira. Gainerakoen artean, 33 artxibatu egin dira betekizunak ez betetzeagatik edota erakunde eskatzaileak atzera egiteagatik, eta 17 ez dira onartu deialdiarekin bat ez etortzeagatik.

Aurten, Covid-19aren eraginaren ondorioz, Estatuko eta nazioarteko proiektioeko ekitaldiei lotutako proiektu gutxiago aurkeztu dira.

Lurraldeak kontuan hartuta, aurkeztutako, onartutako eta ebatzitako zenbatekoak honako hauek dira:

	AURKEZTUTAKO GASTUA	ONARTUTAKO GASTUA	KALKULATUTAKO DIRULAGUNTZA	EBATZITAKO DIRULAGUNTZA	
ARABA	374.831,26	255.281,22	121.968,73	121.968,73	% 20,54
GIPUZKOA	1.065.456,75	672.301,85	301.788,23	301.788,23	% 50,83
BIZKAIA	793.395,79	357.266,88	169.945,59	169.945,59	% 28,62
GUZTIRA	2.233.683,80	1.284.849,95	593.702,55	593.702,55	

Dirulaguntza-lerroak eta lurraldeak kontuan hartuta, emaitza honako hau izan da:

	Produktu eta esperientzien sorkuntza			Estatuko eta nazioarteko proiektzioa duten ekitaldiak		
	AURKEZTUTAKO GASTUA	ONARTUTAKO GASTUA	EBATZITAKO DIRULAGUNTZA	AURKEZTUTAKO GASTUA	ONARTUTAKO GASTUA	EBATZITAKO DIRULAGUNTZA
ARABA	180.994,11	139.556,22	81.968,73	193.837,15	115.725,00	40.000,00
GIPUZKOA	685.529,35	455.362,99	225.318,80	379.927,40	216.938,86	76.469,43
BIZKAIA	599.081,11	240.046,49	142.667,89	194.314,68	117.220,39	27.277,70
GUZTIRA	1.465.604,57	834.965,70	449.955,42	768.079,23	449.884,25	143.747,13

Bi dirulaguntza-lerroei dagokienez (produktu eta esperientzien sorkuntza eta Estatuko eta nazioarteko proiektzioa duten ekitaldiak), lehenera bideratutako aurrekontua % 76 izan da, eta bigarrenera bideratutakoa, berriz, % 24.

Joan den azaroaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ekitaldi honetan eta turismoa merkaturatu eta sustatzeko 2020rako laguntzak (TMS programa) arautzen dituen eta haietarako deialdia egiten duen Aginduan finkatutako esparruan emandako laguntzen zerrenda argitaratu zen.

Trabajo y Empleo

EL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO INFORMA DE QUE ESTABLECERÁ UN PROTOCOLO DE COORDINACIÓN EN MATERIA DE EMPLEO E INSERCIÓN SOCIOLABORAL CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

La Vicelehendakari y Consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, ha informado al Consejo de Gobierno sobre el protocolo de actuación del Departamento de Trabajo y Empleos y Lanbide con la Diputación Foral de Bizkaia en materia de empleo e inserción socio-laboral, que será suscrito entre ambas instituciones.

Este Protocolo completa los ya firmados con la Diputación Foral de Gipuzkoa en 2018 y con la Diputación Foral de Araba/Álava en enero de 2020, orientados a la coordinación de esfuerzos y recursos, en línea con los objetivos previstos en los instrumentos estratégicos en la materia de desarrollo económico, empleo, servicios sociales e inclusión socio-laboral, una coordinación que se hace todavía más imprescindible en la actual crisis y que se contempla en el programa de Gobierno.

Este acuerdo, con una vigencia prevista de cuatro años, pretende mejorar la atención que presta tanto el Sistema Vasco de Servicios Sociales como el sistema de empleo y garantía de ingresos y obtener una mayor eficacia y eficiencia en la acción de gobierno vinculada a la promoción económica, a la productividad del tejido empresarial, al empleo, al emprendimiento, al espíritu empresarial y a las políticas sociales en el Territorio Histórico de Bizkaia.

El documento reconoce expresamente que “es evidente que se precisa una mayor y mejor coordinación de las políticas y sistemas de garantía de ingresos, servicios sociales y empleo, y la gestión compartida de información relevante para ambos sistemas”, y el objetivo es fortalecer el tejido social y económico a través de una mayor colaboración que favorezca la incorporación activa y participativa de todas las personas, mujeres y hombres, al tejido social y económico”.

Junto con los fines compartidos con las otras dos Diputaciones Forales, relativos a la mejora de la empleabilidad e inserción sociolaboral de jóvenes y la difusión de la cultura emprendedora, en el caso de Bizkaia la colaboración se extiende a la elaboración y desarrollo de los Planes Estratégicos Comarcales de Enkarterri y Ezkerraldea y Mehatzaldea, diseñados a partir de los trabajos culminados por el Parlamento vasco la pasada legislatura.

Economía y Hacienda

CONVENIO ENTRE EL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA Y EL EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA/INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA-EUSTAT SOBRE LOS CENSOS DE POBLACIÓN Y VIVIENDAS DEL AÑO 2021 Y LAS ESTADÍSTICAS DE POBLACIÓN ASOCIADAS POSTERIORES

El Consejo de Gobierno ha aprobado la suscripción de un convenio entre el Instituto Nacional de Estadística y Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística-Eustat en relación a los Censos de población y viviendas del año 2021 y otras estadísticas de población asociadas.

Los Censos Generales son las operaciones estadísticas de mayor magnitud e importancia para el sistema estadístico de un país, en tanto que determinan los parámetros fundamentales de los edificios, las viviendas y la población residente y para cada uno de sus ámbitos territoriales y administrativos, suministrando una información básica.

Las informaciones que suministran dichos censos son fundamentales para todas las Administraciones Públicas, en relación con sus tareas de planificación, gestión y seguimiento de servicios y políticas públicas y, además, dichas informaciones también son fundamentales para los agentes sociales y para la ciudadanía, en general.

Dichas informaciones también desempeñan un papel muy relevante en relación con la planificación, desarrollo y evaluación de los Fondos y Programas de la Unión Europea y que las informaciones censales detalladas desempeñan un papel fundamental debido al fuerte apoyo de las decisiones presupuestarias de la Unión Europea en información estadística oficial para áreas territorialmente detalladas.

La operación estadística Censos de Población y Viviendas está recogida en el Plan Estadístico Nacional 2017-2020 y en el Plan Vasco de Estadística 2019-2022, por lo que existe un interés común en aunar esfuerzos para cubrir los objetivos previstos en los respectivos planes estadísticos y en evitar duplicidades en la operación estadística, lo que a su vez repercutirá en un ahorro de recursos públicos.

El objeto del presente Convenio entre el INE y Eustat es el intercambio de metodologías y de información estadística necesarias para el desarrollo de los trabajos de elaboración de los Censos de Población y Viviendas del año 2021.

Educación

1,1 MILLONES DE EUROS PARA POTENCIAR LA INVESTIGACIÓN DE EXCELENCIA EN EUSKADI

- **El Departamento de Educación concede tres subvenciones directas destinadas a proyectos de investigación de excelencia y a la adquisición de equipamiento científico**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la concesión de tres subvenciones directas a diversos agentes del ámbito de la investigación de excelencia, ligados al ecosistema universitario vasco. En concreto, se han autorizado ayudas directas a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) y a los centros de investigación de excelencia BCMaterials y BCBL. Destinadas a la adquisición de equipamiento científico y al apoyo a proyectos de investigación de excelencia, la suma de las tres ayudas asciende a 1.113.000 euros, distribuidos de la siguiente manera:

200.000 euros para el BCBL – Basque Center on Cognition, Brain and Language, para llevar a cabo **un proyecto de investigación del ámbito de la salud**. El objetivo de la ayuda es desarrollar un proyecto de investigación colaborativo en el área de Biociencias y Salud, para valorar la seguridad clínica de la cirugía de áreas elocuentes del cerebro con paciente despierto, en el que colaboran BCBL, el Hospital Universitario Cruces (OSI Ezkerraldea) y BioCruces. Dentro de la línea de investigación de "*Neurodegeneración, daño cerebral y rehabilitación*" en el que trabajan los citados agentes, se está desarrollando un proyecto de transferencia a la sociedad, único e innovador: la supervivencia de un paciente con un tumor cerebral depende de su grado de malignidad y de la resección quirúrgica practicada. Es por esto que, la cirugía con paciente despierto es una técnica eficiente en pacientes con tumores cerebrales, ya que, prolonga la supervivencia del paciente y el período libre de enfermedad, manteniendo la calidad de vida.

La investigación del BCBL busca, entre otros objetivos, incidir en la seguridad clínica, minimizar las secuelas, y garantizar el bienestar del paciente que es sometido a este tipo de cirugía. De igual manera, es objetivo de esta investigación generar conocimiento sobre las redes cerebrales que sustentan las funciones cognitivas, en particular del lenguaje, y conocer mejor la plasticidad cerebral.

El proyecto tiene una gran relevancia tanto para la comunidad científica internacional como para la del País Vasco, contando además con la participación de tres agentes del sistema vasco de salud e investigación como son el BCBL, la OSI Ezkerraldea (Hospital de Cruces) y el IIS BioCruces.

BCBL destinará la cuantía de la subvención para hacer frente a los costes laborales del personal (personal investigador, de laboratorio y de administración) adscrito al proyecto.

413.000 euros para la UPV/EHU, para la adquisición de un Microscopio Electrónico de Transmisión. El objetivo de esta ayuda es la de financiar la adquisición de un nuevo Microscopio Electrónico de Transmisión para los Servicios Generales de Investigación de la UPV/EHU, con la finalidad de potenciar –gracias a este nuevo equipamiento- las áreas de biotecnología, energía, y ciencia y tecnología de materiales.

Los Servicios Generales de Investigación de la UPV/EHU, SGIker, son un agente relevante en el ecosistema de investigación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. Ofrecen instalaciones de última generación, capacitación y servicios a la comunidad investigadora y a los socios industriales. Los SGIker cuentan con infraestructura y personal altamente cualificado repartido en Unidades y Servicios que, a su vez, se encuentran presentes en los tres Territorios Históricos de la UPV/EHU. Estas Unidades y su infraestructura científico-tecnológica están gestionadas por personal propio. En total, un staff técnico de 53 personas, de las cuales 39 tienen el grado de doctor.

500.000 euros para BCMaterials – Centro Vasco de Materiales, Aplicaciones y Nanoestructuras, **para el acondicionamiento y equipamiento de sus laboratorios de Nanoquímica, Biomateriales, Manufactura avanzada y Óptica y Optoelectrónica.** Para lograr que BCMaterials se consolide como centro de referencia internacional, es imprescindible la expansión del centro, con la creación de espacios adecuados para la incorporación de investigadores e investigadoras, así como de laboratorios de investigación específicos para las diferentes líneas y áreas.

Por ello, la subvención arriba indicada se destinará al acondicionamiento y equipamiento de los laboratorios del centro de investigación BCMaterials.

Este centro de investigación de excelencia engloba físicos, químicos, biólogos e ingenieros, y desde su creación impulsa el desarrollo de la investigación en Nuevos Materiales, de manera integrada y multidisciplinar. BCMaterials cubre desde los aspectos más básicos de la investigación hasta las aplicaciones de materiales funcionales con propiedades mecánicas, térmicas, químicas, eléctricas, magnéticas y ópticas avanzadas; intentando integrar síntesis, procesado, caracterización e incluso la integración de dichos materiales en dispositivos.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO APRUEBA SUBVENCIONES DE EMAKUNDE POR VALOR DE 800.000 EUROS PARA IMPULSAR PLANES E IGUALDAD EN AYUNTAMIENTOS Y PARA ORGANIZACIONES QUE IMPULSEN ACTIVIDADES DE PREVENCIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy dos convocatorias de subvenciones de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer por valor de 800.000 euros dirigidas a organizaciones, asociaciones y fundaciones que impulsen y promuevan actividades de sensibilización y prevención de comportamientos violentos contra las mujeres (300.000 euros) y a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi para impulsar la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres (500.000 euros).

Por otro lado, el Consejo de Gobierno ha aprobado también la convocatoria de tres becas de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres convocadas por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para el año 2021 por valor de 70.000 euros. El contenido de cada tipo de beca versará sobre los siguientes objetos de investigación:

- a) Beca tipo 1: Búsqueda de iniciativas, propuestas y análisis de factores que favorezcan el cambio de valores en los distintos ámbitos de la sociedad e incidan en la transformación social hacia la igualdad.
- b) Beca tipo 2: Análisis de las situaciones y de las desigualdades en los colectivos de mujeres en riesgo de discriminación múltiple, especialmente en el acceso a los recursos sociales, económicos y en la seguridad.
- c) Beca tipo 3: Análisis del acceso, participación e influencia de las mujeres en los distintos ámbitos de toma de decisión sociopolítica y búsqueda de iniciativas y estrategias que favorezcan el liderazgo y el empoderamiento político, económico y social de las mujeres y que contribuyan a cambiar o superar el sistema patriarcal.

Turismo, Comercio y Consumo

593.000 EUROS EN AYUDAS A LA COMERCIALIZACIÓN Y PROMOCIÓN TURÍSTICA DE EUSKADI

En 2020, el Programa de Ayudas a la Comercialización y la Promoción Turística de Euskadi ha destinado 593.702 euros a un total de **70 proyectos** diseñados para impulsar eventos, productos turísticos, experiencias... que contribuyan a la diversificación y dinamización del sector turístico vasco.

Las entidades beneficiarias del programa han sido **microempresas, pymes, asociaciones empresariales, fundaciones y entidades sin ánimo de lucro** cuyo objeto social incluya la promoción turística o empresas organizadoras de eventos, culturales, gastronómicos y deportivos de proyección turística nacional e internacional que se celebren en Euskadi.

Resultado de la convocatoria:

	Creación productos y experiencias	Eventos con proyección nacional e internacional	
ALAVA	11	2	13
GIPUZKOA	27	6	33
BIZKAIA	21	3	24
TOTAL	59	11	70

Se han presentado 120 proyectos. De ellos han sido admitidos 70. De los restantes, 33 han sido archivados por no cumplir requisitos o desistidos por la entidad solicitante y 17 no han sido admitidos por no ajustarse a la convocatoria. Este año, como consecuencia del impacto de la covid 19, se han presentado menos proyectos relacionados con eventos con proyección nacional e internacional.

Por territorios, los importes presentados, admitidos y de subvención resuelta, son los siguientes:

	GASTO PRESENTADO	GASTO ADMITIDO	SUBVENCION CALCULADA	SUBVENCION RESUELTA	
ALAVA	374.831,26	255.281,22	121.968,73	121.968,73	20,54%
GIPUZKOA	1.065.456,75	672.301,85	301.788,23	301.788,23	50,83%
BIZKAIA	793.395,79	357.266,88	169.945,59	169.945,59	28,62%
TOTAL	2.233.683,80	1.284.849,95	593.702,55	593.702,55	

Por líneas de subvención y territorios, el resultado es el siguiente:

	Creación productos y experiencias			Eventos con proyección nacional e internacional		
	GASTO PRESENTADO	GASTO ADMITIDO	SUBVENCION RESUELTA	GASTO PRESENTADO	GASTO ADMITIDO	SUBVENCION RESUELTA
ALAVA	180.994,11	139.556,22	81.968,73	193.837,15	115.725,00	40.000,00
GIPUZKOA	685.529,35	455.362,99	225.318,80	379.927,40	216.938,86	76.469,43
BIZKAIA	599.081,11	240.046,49	142.667,89	194.314,68	117.220,39	27.277,70
TOTAL	1.465.604,57	834.965,70	449.955,42	768.079,23	449.884,25	143.747,13

Según las dos líneas subvencionable –creación de productos y experiencias y eventos con proyección nacional e internacional-, el presupuesto destinado a la primera de ellas ha sido del 76 % mientras que a la segunda se ha destinado el 24 %.

En el Boletín Oficial del País Vasco del pasado 10 de noviembre se publicó la relación de las ayudas concedidas en el presente ejercicio, dentro del marco fijado en la Orden que regula y convoca las ayudas destinadas a la comercialización turística y a la promoción (programa CTP) para el año 2020.